

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua target espezifiko bati dago bideratuta. 12 urtetik gorako pertsonak erabili dezakete, bereziki emakumeentzako produktua da, emakume helduentzat. Bizitza errutinarioak dituzten pertsonentzat gure produktua perfektua da, ofizinara edo eskolara bustita iristea oso deserosoa da. Horretarako gure produktua egokia da. Lona berezi bat du, eta honekin, haize eta ur tanta guztiak sahiestu ditzazkete. Lurruntzea eta tantak hor gelditzea ez da arazorik izango. Eskaintzen dugun tarifa bereziarekin, "spray" a lortu dezakete (bi aterki erosiz gero, "spray" a lortu daiteke) eta honekin lona ez da ez lurrunduko ezta ez dira bertan tantak geldituko.

Gure produktua geografari begira, hiriguneetan erabiltzeko produktua da gehien bat, malda gutxi izatea da garrantzitsua. Beraz landa-eremuak ez dira oso erosoak izango gure produktuarentzat. Klima euritsua izan behar du, produktua benetan erabilgarria eta behargarria izateko.

Neurri ezberdinak egongo dira gorputzari egokitzeko. Prezioari dagokionez, nahiko errentagarria izango da 17€-ko prezioarekin. Gainera bi erosiz gero, oferta bat egongo da eta aterkia lehen baino askoz merkeago aterako da.

Gure produktua epe luzerakoa da, hau da behin erosiz gero, urte asko iraungo du (5 urte gutxi gora behera). Materialak lehenengo mailakoak izango dira, kalitate bikaineko aterkiak baitira.

Aterki arrunt batek soilik burua estaltzen du, eta gorputz osoa zabalean uzten du, bustitzeko arriskuarekin. Burua estali arren, gorputz osoa eroso, seguru eta lehor mantendu ditzake.

Lehen esan bezala 12 urteko umeek ere erabili dezakete, eta horretarako beraien beharretara ere estutu gara. Pisuari dagokionez, oso arina izango da eta denbora luzez erabiltzeak ez du batere eragingo erabilgarritasunean.

Arazoren bat egongo balitz eta produktua akatsduna etorriko balitz, dirua bueltatuko litzaieke edo nahi izanez gero berri bat eman, gurekin kontaktuan jarri ondoren eta gauzak adostu ondoren.